

KOLAPSOA

GEURETIK SORTUAK EKIMENETIK

USURBIL EN SORTUTAKO ANTZERKIA

Antolatzaileak: Udaltzita (Geuretik Sortuak) eta Usurbilgo Udala.

Kolapsoa, Geuretik Sortuak ekimenaren baitan, Usurbilen sortutako antzerkia da. Martxoaren 1ean estreinatuko da Sutehin, eta, aurrez, otsailaren 19ko hitzaldian, antzezlanaren edukiaren inguruko azalpenak emango dira.

OTSAILAK 19, OSTEGUNA

Hitzaldia: Desazkundera: Programatua edo Kolapsoa?

18:00 Potxoenean

Hizlaria: Aitor Marcos (1994, Bermeo), EHuko Ekonomia irakaslea.

“Geuretik sortuak” egitasmoaren baitan, martxoaren 1ean Usurbilen estreinatuko den “KOLAPSOA” antzezlanaren sortu da. Prozesuan, artistekin batera gaiaren inguruan adituak diren ikerlariak ere aritu dira, desazkundera sakontasunez lantzeko.

Hitzaldi honen bidez, antzerki taldeak antzezlanaren abiapuntua eta sortzera bultzatu zuen interesa Usurbilgo herriarekin partekatu nahi ditu. Horretarako, desazkunderaren zergatiak eta aukerak azalduko dira, krisi klimatikoaren mugak ikuspegi ekonomiko eta ekososial batetik aztertuz, hausnarketa kolektiborako gonbita eginez.

MARTXOAK 1, IGANDEA

Kolapsoa antzerkia

18:00 Sutehigiko auditoriumean

Sarrerak: 3,5 € usurbilkultura.eus webgunean.

Ekizpena Jon Ander Urresti / **Zuzendaritza** Matxalen de Pedro / **Interpreteak** Maite Mugerza, Txubio Fernandez de Jauregi, Jon Ander Urresti / **Testuak** Nerea Ibarzabal / **Argiztapena** Mikel Perez / **Soinuztapena** Asier Renteria / **Jantziteria** eta atrezoa Paloma Merino / **Argazkiak** Iker Gozategi / **Irudi eta maketazioa** Arriguri / **Teknika** Vanesa Santos.

Publizitate agentzia honetako hiru kideak edozer saltzeko kapaz dira. Den-dena, baita behar ez duzuna ere. Batik bat, behar ez duzuna.

Despistatu, eta bi buruko koilara bat salduko dizute azkarrago bazkalduko duzula esanda. Edo ohe birakari bat, gauero estresa zentrifugatuko dizuna. Edozer. Txakurrentzako katiuskak eta arbolentzako aterkiak. Jendea Arabar Errioxan ardo urdina eskatzera iritsi zen hauen kanpaina baten ondorek.

Azken orduko gertaera batek, ordea, hankaz gora jarriko du agentzia. Gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoa.



IKASTAROAK

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUAK

Noiz: Otsailak 20 · **Ordua:** 15:00

Non: Potxoenean

Irakaslea: Aitor Etxeandia

Izen-ematea: Doan. Alkatasunako telefonoan 943 361 114 eta alkatasuna.eus web orrian.

Kimaketa praktikak inguruko sagastietan egingo dira.

EMAKUMEON ETXEKO JABETZE ESKOLAKO IKASTAROAK

Izen-emateko epea zabalik urtarrilaren 28tik otsailaren 5era.

emakumeonetxea@usurbil.eus / 913 37 71 12

DEIALDIA

SANTIXABELAK ANTOLATZEKO BILERA

Otsailak 4, asteazkena

17:00 Potxoenean

Santixabel Jaiei antolaketan parte hartu nahi duten guztientzako bilera irekia izango da.

BISITA GIDATUAK

- Otsailak 7 Gerraren Memoriaren Ibilbidea.** 11:00 Mikel Laboa Plazan.
- Otsailak 8 Museo Irekia Zumeta Arte Estudioa.** 11:00 Sutehigiko Udaltzitegiaren.
- Otsailak 21 Museo Irekia eta Salbatore Eliza.** 11:00 Sutehigiko Udaltzitegiaren.
- Otsailak 25 "Zero Zabor".** 10:00 Udaletxean.
- Otsailak 27 "Zaintzaren Usurbil".** 10:00 Udaletxean.



Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefonoa: 747 485 140

turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

IKASTARO ETA MINTEGIAK

AURREZ AURREKOAK

OINARRIZKO INTERNETA

- Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi.** (20 ordu).
- Otsailak 2-13** 09:00-11:00

OFIMATIKA TRESNAK

- TLibreOffice.** (20 ordu).
- Otsailak 16-27** 09:00-11:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideo konferentzia eskaintza zabalda.

Irailean Kzgunea: Goizez 09:00-13:00

Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84

tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00	2	3	4	5	6	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	9	10	11	12	13	●	●
Itxita	16	17	18	19	20	●	●
Goizez	23	24	25	26	27	●	●

Sutehigiko Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>



Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara eta Gazteria Saila

Tel. 943 371 999

kultura@usurbil.eus

www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus

Herritarren tresna

Usurbilgo kultura zabaltzeko



USURBIL KULTURA

2026ko otsaila

	Igandea 18:00 Sutehin	FRANKKOPOLON ANTZERKIA	1
	Asteazkena 18:00 Kalezarko Egurtzegitik	SANTA AGEDA ESKEA	4
	Osteguna 17:00 Txirikorda sotoan	AURKEZPEN IREKIA: MAITELAN ZAINZA KOOPERATIBA	5
	Ostirala 17:30 Udaltzitegiaren	XAKE FESTA	6
	Ostirala 17:30 eta 19:00 Sutehin	IRABAZI ARTE! ESTREINALDIA	6
	Larunbata 10:30 Kiroldegian	INAUTERI JANTZIEN TAILERRA	7
	Larunbata 14:00 Aitzagan	GORA HERRIAK! BARRIKOTEA	7
	Larunbata 20:00 Frontoian	GORA HERRIAK! KONTZERTUAK; VIAFARA, LOITA AMADA ETA RUKULA	7
	Igandea 17:00 Sutehin	HAURRENTZAKO ZINEMA: SARI NAGUSIA, ZITU BIZIAN	8
	Ostirala 18:00 Herrigunean	USURBILGO INAUTERIA. URDEREN ETORRERA!	13
	Larunbata Egun osoz, herrigunean	INAUTERI FESTA	14
	Osteguna 18:00 Potxoenean	DESZKUNDERA: PROGRAMATUA EDO KOLAPSOA?	19
	Larunbata 11:30 Udaltzitegiaren	MIKROIPUIN TAILERRA	21
	Igandea 18:00 Eliza Zaharrean	EÑAUT ELORRIETAREN KONTZERTUA	22
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU JIRA KALEZ KALE	28
	Larunbata 18:00 eta 21:00 Eliza Zaharrean	ERROMERIA ETA BERTSO AFARIA AGINAGAN	28
	Igandea 18:00 Sutehin	“KOLAPSOA” ANTZERKIA	martxoak 1

IKASTAROAK

Otsailak 20 15:00 Potxoenean	SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUAK
Izen-emateko Urtarrilaren 28tik otsailaren 5era	EMAKUMEON ETXEKO JABETZE ESKOLAKO IKASTAROAK

2026ko OTSAILA

USURBIL

Kultura



Otsailak 22 KONTZERTUA

Aginagako Eliza Zaharrean

EKINTZAK

1

Igandea

18:00

Sutegiko auditoriumean

Frankopoleon antzerkia

Antolatzaileak: Udalbiltza (Geuretik Sortuak), Usurbilgo Udala eta Noaua!

Sarrerak: 3,5 € usurbilkultura.eus webgunean.

2070. urtea. Frankopoleon estatu duala...

Zerk egiten gaitu euskaldun? Noren begiradapetik begiratu, mugatu, mututu, mutilatu edota depilatzen gaituzte? Zenbat hizkuntza hitz egiten ditugu euskaldunok? Zein euskara hitz egiten dugu? Nondik gatoz? Nola bukatuko dugu?

KULTURARTECO

Belaunaldi desberdinetako hiru emakume sortzaile gara: Ekhiñe Famoso Intxaurrendieta, Inma Koiote eta Saioa Gomez Tejeria. Udalbiltzako Geuretik Sortuak ekimenari esker elkartu ginen 2024an.

KulturArteCo.-ren helburua gure sormen lanak kulturartekotasunaren begiradatik eratzea da. Euskaraz bizi gara eta euskarek lekua ematen diegu.

OTSAILAK 4, ASTEAZKENA

SANTA AGEDA BEZPERA

LURRA ESNATZEKO GARAIA DA!!!!



18:00 Egurtzegiko bizikidetza-etxegunean, Kalezarren.

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu taldea.

Urtero bezala, SANTA AGEDA bezperako ohitura zaharrari jarraiki, herrian zehar kantuz ibiliko gara.

Makila hartu eta zatoz gurekin aspaldiko koplak abestuz gozatzerara. Ahal dela baserri-tarrez jantzita etorri.

Egurtzegi aurrean egingo dugu lehen saioa bertakoei ere antzinako usadioa berritze-ko parada emateko.

5

Osteguna

17:00

Txirikordako sotoan

Aurkezpen irekia: Maitelan Zaintza Kooperatiba

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Maitelan Kooperatiba.

Hizkuntza: gaztelania.

Maitelan Kooperatiba 2020an sortu zen Beterri-Buruntza eskualdean, eta zaintzaren sektoreko irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundea da. Zaintza behar kolektiboari erantzun nahi diote, zaintza lanak duintzeko helburu argiarekin batera, batik bat, emakume migratuena. Beterri-Buruntza Mankomunitatearekin hitzarmen bat sinatu berri dute, batetik, zaintzaile profesionalentzako arreta eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzeko eta, bestetik, zaintzaileen arteko dinamika kolektiboak sortzeko mankomunitateko kide diren herrietan. Kooperatibako kideek eurek emango dute euren lanaren berri, baita datozen hilabeteotan Usurbilen egingo duten lanketaren berri ere.



6

Ostirala

17:30

Udal liburutegian

Xake festa, Breogan Estévezzen eskutik

Antolatzailea: Udal Liburutegia.

Norentzat: 8 urtetik gorakoentzat.



6

Ostirala

17:30 eta 19:00

Sutegin

Irabazi Arte! 5. denboraldiko lehen atalaren estreinaldia

Antolatzaileak: UEMA eta Usurbilgo Udala.

Norentzat: Nerabeei zuzenduriko saioa da.

Saioaren iraupena: ordubete.

Sarrerak: gonbidapenak doan usurbilkultura.eus webgunean. Urtarrilaren 30etik aurrera.

Arene eta bere lagunek institutuko azken urteari aurre egingo diote. Azken urtea lasaia izango zela ematen zuen arren, azkenean, ez da hola izango: norbait ez dago klubeko festa egunean gertatutakoa ahazteko prest eta denek ordaindu beharko dute gau zorigaiztoko hartan egindakoagatik.



7

Larunbata

Egun osoko jaia

Gora Herriak! Euskal Herria-Galiza

BARRIKOTEA ETA KONTZERTUAK: VIAFARA, LOITA AMADA ETA RUKULA

Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkartea.

Aitzaga Kultur Elkarkeak usurbildar eta galizarren arteko topaketa berezia antolatu du.

12:00 Argazki erakusketa gidatua Sutegiko erakusketa gelan: "Hamaika herri, borroka bakarra "Loita Amada".

14:00 Barrikotea Aitzagan. Barrikoterako sarrerak Aitzagan eskuratu ahal izango dira aldeztu aurretik, 25 euroren truke. Menua: tortilla, bakailaoa, saiheskia eta postrea.

20:00 Kontzertuak frontoian:
Viafara, Loita Amada, Rukula.



8

Igandea

17:00

Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea Sari nagusia, ziztu bizian

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza Gazte Elkartea.

Iraupena: 98 minutu.

Sarrerak: 3,30 € usurbilkultura.eus webgunean.



Sari Nagusia: Ziztu bizian filmak Edda du hizpide, lasterketetako pilotu izatea amesten duen arratoia. Bere ametsa egia bihurtzen da gainbeheran dagoen jolas-parke bat Europako Sari Nagusirako lasterketa-zirkuitu bihurtzen denean. Bere idoloarekin batera, Ed pilotua, Eddak lehiaketaren erronkei aurre egin beharko die eta lasterketa sabotatzeko konplot bat aurkitu beharko du, familiaren negozioa salbatzen saiatzeaz gain.

INAUTERIAK 2026

OTSAILAK 13-14

Antolatzaileak: Noaua! K.E., Orbeldi dantza taldea.

Laguntzaileak: Zumarte Musika Eskola, Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, Ziortza Gazte Elkartea, Txirikorda eta Belmonte Auzo Elkartea.

OTSAILAK 7, LARUNBATA

Inauteri Jantzien Tailerra

10:30 Kiroldegian, Orbeldiko aretoan

Inauteritako jantzien tailerra eta entsegu irekia. Izan zaitez zu ere herri inauterien parte!

OTSAILAK 13, OSTIRALA

Urderen etorrera!

18:00 Kalezarko plazatik abiatuta – herri kalejira.

Pelaioena, Egurtzegi, Txirikorda, Errekatziki, Olano-nea, Mikel Laboa Plaza.

Mozorroto Usurbilgo Inauterietako pertsonaiez (Angulari, Harrapari, Lamia eta Zakuz) eta etor zaitez gurekin Urderen inauterieritako izpirituaren bila! Apaindu zuen balkoiak zapiekien.

OTSAILAK 14, LARUNBATA

Inauteri festa

Egun osoan zehar, herrigunean.

Gaia: Munduko festak (San Ferminak, October Fest, Feria de Abril edo Aizterrazuko erromeria....) ospatuko ditugu aurtengoan!!! Mozorroto eta etorri Inauterietaz gozatzerara.

18:00 **Burrunbazale** txarangarekin kalejira.

22:30 **Itzal** erromeria taldearen emanaldia frontoian.



21

Larunbata

11:30

Udal liburutegian

Mikroipuin Tailerra, Idoia Torregaraireren eskutik

Antolatzailea: Udal Liburutegia.

Norentzat: 16 urtetik gorakoei eskainia.

Izen ematea: aldeztu aurretik liburutegian bertan.

22

Igandea

18:00


Aginagako Eliza Zaharrea

Eñaut Elorrietaren kontzertua Aginagan: Ateosteko bira

Antolatzaileak: Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea eta Usurbilgo Udala.

Sarrerak: 8 € usurbilkultura.eus webgunean eta Aginagako Arrate Ostatuan, urtarrilaren 29tik aurrera.

Fantasia diskoa aurkezteko bira amatuta, eta, hurrengo lan luzea ondu biartean, ATEOSTEKO BIRA eskainiko du Eñaut Elorrietak. Bira txiki eta berezia izango da. Antzokietatik irtenda, eliza, ermita eta baselizak lehenetsiko ditu ATEOSTEKO BIRAK. Harrizko hormak, egurrezko eserlekuak eta ahots lurta bat: kantua kultuzko keinu gisa. Elizaren oihartzunaren kontra tematu beharrean, pareten erantzunarekin jolastuko du Elorrietak, harriari ahotsa ateraz, beste garai batzuetako kantuen memoria aktibatuz. Soinu eta argi-ekipo soil eta zainduarekin, ahots eta gitarra hutsez eskainiko du Eñaut Elorrietak bere ibilbide osoko kanten aukeraketa zabala. Kontzertu zuzenak eta biluziak izango dira, herri-kanturen eta esperimentazioaren artean, ahotsaren posibilitateetan arakatuko dutenak.



23

Astlehena

17:00

Gaztelekuan



Buruntzaldeko Beat Eroak herri arteko rap lehiaketa: 1. saioa

Izen-ematea: buruntzaldea.eus/beat-eroak (urtarrilaren 30 arte)

Antolatzailea: Buruntzaldea euskaraz.

12-16 urte artekoei bideratutako Buruntzaldeko rap lehiaketa. Herri bakoitzean 30 gazte parte hartu ahal izango dute egitasmoan. Bi saio izango dira: lehenengoan, hitza sortuko dute eta bigarrenean, erritmoa gehitu; guztia Odei Barroso eta Telmo Trenorren laguntzarekin. Azkenean, Usurbilgo gazteek abesti bat osatuko dute eta udaberrian Buruntzaldeko lehiaketan parte hartuko dute. (Bigarren saioa martxoaren 9an izango da)

28

Larunbata

12:00

Mikel Laboa plazatik irteera



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Kantu liburuxka beharrezkoa da. Noaua!ren egoitzan eros daiteke.

Kantu zaharrak eta berriak kalez-kale kantatzeko parada eta lagunarteko elkarretaratzea, sagardo-txinpartekin zintzurra bustiz.

28

Larunbata

18:00

Aginagako Eliza Zaharrea

Erromeria eta bertso afaria Aginagan

Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañagarekin.

21:00 Bertso Afaria (sarrera 30euro).

